Astigarragako Udala

Idazkaritza • Secretaria
idazkaritza@astigarraga.net

# EZ OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2015IPLE0015
**Eguna:** 2015-10-24
**Ordua:** 09:30 – 10:40
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Jesus Mª Santos Anabitarte | EAJ-PNV |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Juan Martin Arregui Sagües | EAJ-PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte (2. aztergaiatik aurrera) | EAJ-PNV |
| - Olaia Pastoriza Santos | EAJ-PNV |
| - Nerea Zusberro Alberro | EAJ-PNV |
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EHBILDU |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | EHBILDU |
| - Ander Goicoechea Ocariz | EHBILDU |
| - Ainara Vázquez Martinez | EHBILDU |
| - Iker Goñi Salaberria | EHBILDU |
| - Mª Teresa Bernal Monroy | EHBILDU |
| - Mikel Durán Gonzalo | EUSKAL SOZIALISTAK |

**Bertaratu ez direnak**

-

**Bertaratutako udal teknikariak**

- Xabin Olaizola Lasa, udal kontu-hartzailea

**Idazkaria**

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2015eko irailaren 19ko aktaren onarpena** | **1.** | Aprobación del acta de 19 de septiembre de 2015 |
| **Astigarraga-Zarkumendegiko bidegorri egiteko obra. Esleipen proposamena** | **2.** | Obra construcción bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi. Propuesta de adjudicación. |

| | | |
|---|---|---|
| **Astigarragako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren aldaketa zehatza, HEA 23 "Zarkumendegi Zabalpena"ri buruzkoa** | **3.** | Iniciación del expediente de modificación puntual del P.G.O.U. de Astigarraga, referido a la A.I.U. 23 "Zarkumendegi Zabalpena". |
| **2016ko taxi tarifen aldaketa onartzea** | **4.** | Aprobación tarifas taxi 2016 |
| **Kale izendegiaren aldaketa onartzea** | **5.** | Aprobación modificación callejero |
| **4. kreditu aldaketa: kredituen arteko transferentzia 2-2015** | **6.** | 4ª modificación de créditos: 2-2015 – Transferencia de créditos. |
| **"Kale Nagusia 62-64-70-72" hiritartze obraren likidazioa.** | **7.** | Liquidación de la obra de urbanización correspondiente a "Kale Nagusia 62-64-70-72" |
| **Mozioa: Askapenarekiko elkartasuna.** | **8.** | Moción: solidaridad Askapena |
| **Mozioa: Hassanna Aalia** | **9.** | Moción: Hassanna Aalia |
| **Mozioa: azaroaren 7ko indarkeria matxisten aurkako martxa** | **10.** | Moción: marcha 7 de noviembre contra la violencia machista |
| **Batzorde informatiboaren izen aldaketaren onarpena** | **11.** | Aprobación modificación denominación comisión informativa |

## Esan-eginak eta erabakiak

Bilerarekin hasi aurretik, Alkateak kultur etxeko lorategiko zati bat desjabetzeko espedientearen kontra fundazioak auzi errekurtsoa aurkeztu duela adierazten du.

Andoni zinegotziak zer errekurritu den galdetzen duenean, udal idazkariak hartzen du hitza azaltzeko, uztailaren 18ko udal osoko bilkurak hartutako akordioaren kontra jarri dutela errekurtsoa. Hau da, espedienteari aurkeztutako alegazioak ez onartu eta espedientearekin jarraitzeko akordioaren kontra. Eta gaiaren defentsa udal aholkulariaren esku utziko dela.

Alkateak, fundazioaren lehendakaria alkatea den arren, berak oraindik notaritzan ez duela

## Desarrollo de la sesión y acuerdos adoptados

Antes de dar inicio a la sesión, el alcalde informa de que la fundación ha interpuesto un recurso contencioso contra el expediente de expropiación de parte de los jardines de la casa de cultura.

El concejal Andoni pregunta qué es lo que se ha recurrido, explicando la secretaria municipal que han interpuesto el recurso contra el acuerdo adoptado por el pleno del 18 de julio. Esto es, contra el acuerdo de no aprobación de las alegaciones presentadas al expediente y de continuar con el mismo. Señalando además, que el tema se ha puesto en manos de la asesora municipal.

El alcalde indica que pese a ser el presidente de la fundación, todavía no ha firmado nada en

ezer sinatu eta Andoni zinegotziari berak zerbait sinatu ote duen galdetzen dio.

Andoni zinegotziak erantzuten dio, berak ez duela ezer sinatu. Eta gaiari buruz dakiena, fundazioko lehendakari-ordeak esandakoa dela, hau da, fundazioko kideak udalak egindako eskaintza ekonomikoaren arabera, erabakiko zutela errekurtsoa aurkeztea edo ez. Udalak zenbat eskaini dien galdetuz.

Batetik bertaratuei argitzen zaie, fundazioko lehendakaria alkatea dela, eta notaritzan aldaketak egitea burokrazi hutsa dela. Eta eskainitako zenbatekoari dagokionez, udalak 5.700 bat euro eskaini dituela azaltzen zaie, eta fundazioak berriz, hasieran 30.000 euro eskatu zituela, balio justuarekin 15.000 euro – baina 129 m2agatik eta ez desjabetzen diren 84m2engatik – eta errekurtsoarekin ordea, 70.000 euro.

el notario, y le pregunta al concejal Andoni si él ha firmado algo.

El concejal Andoni le responde que él no ha firmado nada. Y continúa diciendo que lo único que sabe del tema es lo expresado por el vicepresidente de la fundación, en el sentido de que los miembros de la fundación decidirían presentar el recurso o no dependiendo de la oferta económica realizada por el ayuntamiento. Pregunta cuanto se les ha ofrecido.

Por una parte se aclara a los asistentes que el alcalde es el presidente de la fundación, y que las modificaciones en la notaría son pura burocracia. Y en lo referente a la cantidad ofertada, se les explica que el ayuntamiento ha ofrecido 5.700 euros, y que la fundación al principio solicitó 30.000 €, 15.000 € con el justiprecio –pero por 129 m2, y no por los 84m2 expropiados– y 70.000 € con el recurso.

1. <u>2015eko irailaren 19ko aktaren onarpena</u>

Andoni zinegotziak hartzen du hitza, euskarazko bertsioan 4 akats daudela adierazteko; batetik, 11. orrialdeko 3. paragrafoan “egina” jartzen duela, “egia” jarri ordez; bestetik, 15. orrialdeko 2 paragrafoan “saila” jartzen duela “zaila” ordez, eta paragrafo horren azken lerroan “goizez” jartzen duela, “ arratsaldez” ordez; azkenik, 16. orrialdeko 2 paragrafoan “alkateari” hitza bitan jartzen duela, behin jartzea aski denean.

**Zuzenketa hauek egin ondoren, akta, aho batez, onartzen da.**

Andoni zinegotziak eskatzen du hitza, eta Alkateari komentatzen dio, aurreko osoko bilkuran Santa Ana eguneko ekitaldian bera bakarrik egon zela eta ez zirela beste zinegotzirik bertaratu esan zuela, baina Sagardoaren Lurraldeko web orrian ekitaldi horretako argazkietan beste 2 zinegotzi

1. <u>Aprobación del acta de 19 de septiembre de 2015</u>

El concejal Andoni toma la palabra, e indica que la versión en euskera contiene cuatro errores: por una parte, en el tercer párrafo de la página 11 dice “egina” donde debería decir “egia”; por otra parte, en el segundo párrafo de la página 15 pone “saila” donde debería pone “zaila”, y en la última línea de ese mismo párrafo, “goizez” en vez de “arratsaldez”; por último, en el segundo párrafo de la página 16 el término “alkateari” aparece dos veces, cuando sería suficiente con una.

**Realizadas la citadas modificaciones, se aprueba el acta por unanimidad.**

El concejal Andoni pide la palabra, y le comenta al alcalde que en el anterior pleno señaló que acudió en solitario al acto del día de Santa Ana, no presentándose ningún otro concejal, pese a lo cual, en la página web de Sagardoaren Lurraldea aparecen otros dos concejales en las fotografías relacionadas con dicho acto. Y

azaltzen direla. Eta horretan gezurra esan badute, beste gaietan ere esan dezaketela dio.

Alkateak argitzen dio, beste zinegotzi horiek ez zirela gonbidatu gisa joan, beste herritar batzuk bertaratu ziren moduan baizik, hau da, publiko bezala, eta aurreko osoko bilkuran hori adierazi nahi izan zuela.

Andoni zinegotziak azaltzen dio, aurreko plenoan ez zela hori esan, eta onartu berri dagoen aktan horrela jaso dela. Eta aktan jasotakoa duela balio, beraz, gaizki zegoela pentsatuz gero, aldatzeko eskatu behar zuela.

añade que si son capaces de mentir en eso, lo podrían hacer en cualquier otro tema.

El alcalde le aclara que esos otros concejales no se personaron como invitados, sino como público, al igual que lo hicieron otros ciudadanos, y que eso es lo que intentó explicar en el anterior pleno.

El concejal Andoni le indica que en el pleno anterior no se dijo eso, tal y como recoge el acta recién aprobada. Y que lo que sirve es lo que está recogido en el acta, por lo que debería haber solicitado su modificación, en el caso de considerar que no estaba bien redactada.

## 2. Astigarraga - Zarkumendegiko bidegorria egiteko obra. Esleipen proposamena

Kontratazio mahaiaren irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakiak har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

LEHENA.- Astigarraga - Zarkumendegi bidegorriaren obra lehiaketa Construcciones Moyua, S.L. enpresari esleitzea 532.856,43 eurotan (BEZ kanpo), punturik gehien lortu duen enpresa delako lehiaketa honetan, hain zuzen 48,44 puntu.

BIGARRENA.- Esleipendunak kontratuaren esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 laneguneko epean 26.642,82 eurotako behin betiko bermea eta Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketetan egunean dagoenaren ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesatuei jakinaraztea.

Andoni zinegotziak hartzen du hitza, eta esleipenaren zenbatekoa aurreikusia baina

## 2. Obra construcción bidegorri Astigarraga - Zarkumendegi. Propuesta de adjudicación

Se remite para su aprobación el dictamen de la mesa de contratación, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

PRIMERA Adjudicar la obra de construcción del bidegorri Astigarraga-Zarkumendegi a la empresa Construcciones Moyua, S.L. por 532.856,43 euros (IVA sin incluir), ya que es la propuesta que mayor puntuación ha obtenido en el presente concurso, al obtener 48,44 puntos.

SEGUNDA.- La empresa adjudicataria deberá presentar la garantía definitiva de 26.642,82 euros y la acreditación de estar al corriente en los pagos con Hacienda y la Seguridad Social en el plazo de 10 días hábiles contados a partir del siguiente al de la notificación de la adjudicación del contrato.

TERCERA.- Notificar a los interesados este acuerdo.

Toma la palabra el concejal Andoni, e indica que, considerando que la adjudicación ha sido por un importe menor que el previsto, han

txikiagoa izan denez, bidegorria futbol zelairaino iristea eta bertako aparkalekua egokitzeko eskaera bat aurkeztu dutela adierazten du.

presentado una solicitud para ampliar el bidegorri hasta el campo de fútbol y adaptar el aparcamiento contiguo.

Bestetik, alkatea eta Jon zinegotzia Aldundian edukitako bileraren ostean, erakunde horrek bidalitako aktan, Zarkumendegiko urbanizazioa azaroan hastekoak omen direla jasotzen dela, eta hori horrela den galdetzen dio alkateari.

Por otra parte señala que, tras reunirse el alcalde y el concejal Jon con representantes de la Diputación, en el acta remitida por dicha institución se indica que la urbanización de Zarkumendegi podría iniciarse en noviembre, y a continuación pregunta al alcalde si efectivamente eso es así.

Honek erantzuten dio, hainbat enpresa Ekotrade enpresa bertan jartzeko obrak egingo dituztela prentsaren bidez jakin dutenez, udaletxera deitu dutela lurrak erosi edo errentan hartzeko aukeraren inguruan galdetuz. Baina, urbanizazioen lanen inguruan oraindik ez dagoela ezer erabakita, aurrekonturen bat bakarrik eskatu dutela, eta edozein salmenta-operazio subasta baten bidez egin behar dela argitzen dio.

Este le responde que muchas empresas, tras conocer por la prensa que próximamente se iniciarán las obras para la instalación de la empresa Ekotrade, se han dirigido al ayuntamiento preguntando sobre la posibilidad de comprar o alquilar terrenos. Pero le aclara que sobre las obras de urbanización todavía no hay nada decidido, que únicamente han solicitado un presupuesto, y que cualquier operación de venta debe realizarse por medio de la correspondiente subasta.

Andoni zinegotziak, galdetzen dio, Zarkumendegiko sarreran, bidegorriaren proiektuak aurreikusten ez duen sarreraren bat jartzeko asmoa ote duten, alkateak erantzunez, Aldundiari biribilgune bat jartzeko aukera planteatu diotela.

El concejal Andoni pregunta al alcalde si tienen intención de realizar un acceso no previsto en el proyecto del bidegorri en la entrada de Zarkumendegi, a lo que el alcalde le responde que han planteado a la Diputación la posibilidad de instalar una rotonda.

Mikel zinegotziak hartzen du hitza, eta esleipenaren gaira bueltatuz, esleipenaren zenbatekoa aurreikusitako baino txikiagoa izan denez, EHBilduk egindako proposamena Foru Aldundiarekin adosterik badago, ongi iruditzen zaiola adierazten du. Alkateak adieraziz, aldundiarekin hitz egingo dutela.

Toma la palabra el concejal Mikel, y volviendo al tema de la adjudicación, indica que, considerando que la cantidad de la adjudicación ha resultado menor que la inicialmente prevista, la propuesta de EH Bildu le parece bien, siempre y cuando se acuerde con la Diputación Foral. El alcalde indica que hablarán con la diputación.

**Irizpena** bozkatu ondoren, **aho batez**, **onartu** egin da.

Sometida a votación es **aprobada por unanimidad**.

## 3. Astigarragako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren aldaketa zehatza, HEA 23 "Zarkumendegi Zabalpena"ri buruzkoa

## 3. Iniciación del expediente de modificación puntual del P.G.O.U. de Astigarraga, referido a la A.I.U. 23 "Zarkumendegi Zabalpena"

Hirigintza batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakia har dezaten

proposatzen da irizpen horretan:

Lehen atala.- Astigarragako Hiri Antolaketako Plan Orokorraren Testu Bateginaren aldaketa zehatza idazteko erabaki hartzea, HEA 23 “Zarkumendegi Zabalpena” eremuari dagokionean eta landa lurrean kokaturiko sagardotegiak erregulatzeko normatiba.

Bigarren atala.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurugiro eta Lurralde Antolaketa Sailari galdetzea, beharrezkoa den HEA 23 “Zarkumendegi Zabalpena”ren aldaketa zehatza egiteko irekitako espedientearen ingurumen balorazio estrategikora aurkeztea. Galderarekin batera, Ingurumen Plan eta Programen ebaluazio estrategikoa metodoaren bidez arautzen duen, urriak 16ko 211/2012 Ebazpeneko 5.2 artikuluan eskatzen duen dokumentazioa helaraziko da.

Andoni zinegotziak hartzen du hitza, gai hau osoko bilkurara ekarri izanagatik pozten direla adierazteko; batetik, beraiek plan orokorraren berrikusketa osoa egin nahi zutelako; eta bestetik, ekarri izanarekin, plan orokorra gaizki dagoela baieztatzen delako.

Bestalde, Gruas Zapirainen eremua txukundu egin beharko litzakeela dio, jarduera industrialdera eramanaz, eta Bereziartuako sarrerari ere irtenbide bat eman behar zaiola.

Alkateak, bi gai hauek udal arkitektoak aztertzear dituela, eta hurrengo batzordera eramango direla argitzen dio.

Bestalde, Andoni zinegotziak hartzen du berriro hitza, udalean “Ubarburu Zabalpena” eremuarentzat ere proposamen bat aurkeztu dutela adierazteko, eremua hau ere landalur izaerara pasa dadin eskatuz eta plan orokorraren bi aldaketak batera kudeatzea planteatuz.

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de urbanismo, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Primero.- Acordar la redacción del expediente de modificación puntual del Texto Refundido del P.G.O.U. de Astigarraga, referido al A.I.U. 23 “Zarkumendegi Zabalpena” y a la normativa de regulación de sidrerías en suelo no urbanizable.

Segundo.- Consultar al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, sobre la necesidad de someterse a evaluación ambiental estratégica el expediente de modificación de la A.I.U. 23 “Zarkumendegi Zabalpena”, acompañándose la documentación exigida en el artículo 5.2 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de Planes y Programas.

El concejal Andoni toma la palabra mostrando su alegría por el hecho de que este tema se vaya a tratar en el pleno, en primer lugar, considerando que ellos deseaban revisar totalmente el plan general, y, además porque así queda demostrado que el plan general es deficiente.

Por otra parte indica que habría que acondicionar el entorno de Grúas Zapirain, trasladando la actividad al polígono industrial, y que asimismo habría que buscar una solución para el acceso de Bereziartua.

El alcalde le aclara que estos dos temas están pendientes de revisión por parte del arquitecto municipal, y que serán tratados en la próxima comisión.

Toma de nuevo la palabra el concejal Andoni, indicando que han presentado en el ayuntamiento una propuesta para la zona “Ampliación Ubarburu”, solicitando que también dicha zona pase a ser terreno rústico, y planteando la gestión conjunta de ambas

Alkateak proposamen hori aztertu gabe dutela, eta teknikarien esku utziko dutela erantzuten dio.

**Irizpena** bozkatu ondoren, **aho batez**, **onartu** egin da.

modificaciones del plan general.

El alcalde le responde que todavía no han analizado dicha propuesta, y que lo dejaran en manos de los técnicos.

Sometida a votación es **aprobada por unanimidad**.

**4. 2016ko taxi tarifen aldaketa onartzea**

Obra eta zerbitzu batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta proposatzen da 2016 urterako ondorengo taxi tarifa onartzea :

**4. Aprobación tarifas taxi 2016**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de obras y servicios, proponiendo la siguiente tarifa de taxis para el año 2016:

| 2016eko TARIFA BATERATUA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 TARIFA<br>**Lan egunetan 7:00ak eta 23:00 ordu tartean aplikagarri** | | | 2 TARIFA<br>**Egunero aplikagarria, 23:00tik 7:00 orduak arte. Igande eta jai egunetan aplikatuko da ere, baita larunbatetan 14:00 orduetatik aurrera.** | | |
| **Bandera jaitsiera** | **Ibilitako kilometro bakoitza** | **Itxarote ordua** | **Bandera jaitsiera** | **Ibilitako kilometro bakoitza** | **Itxarote ordua** |
| 5,12 | 1,0885 | 20,888 | 6,1028 | 1,7436 | 32,8274 |

**Irizpena** bozkatu ondoren, **aho batez**, **onartu** egin da.

Sometida a votación es **aprobada por unanimidad**.

**5. Kale izendegiaren aldaketa onartzea**

Obra eta zerbitzu batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakia har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

AIU 9 eremuko a.2/VL-2 partzelan eraikuntza lanetan dagoen eraikuntzako atariei Kontxa Etxeberria Plazako 7, 8 eta 9 zenbakiak ezartzea.

**Irizpena** bozkatu ondoren, **aho batez**, **onartu** egin da.

**5. Aprobación modificación callejero**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de obras y servicios, proponiendo la adopción del siguiente acuerdo:

Asignar a los portales del edificio en construcción de la parcela a.2/VL-2 del área AIU 9, los números 7, 8 y 9 de Kontxa Etxeberria Plaza.

Sometida a votación es **aprobada por unanimidad**.

**6. 4.kreditu aldaketa: kredituen arteko transferentzia 2-2015**

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakia har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

> Udaleko kontu-hartzaileak egindako espedienteari jarraiki 2-2015 kreditu-transferentzia modalitatean kreditua aldatzeko espediente behin betiko izaeraz onartzea, 197.905,47 €-ko zenbatekoarekin.

Andoni zinegotziak hartzen du hitza, eta ogasun batzordean proposamena bertan behera uztea eta beraiek proposamen bat egiteko aukera eskatu zutela adierazten du, aukeratutako kontu-sailak beraientzat ez baitira aproposenak, eta ogasunak Astigarraga Lantzeni itzulitako 107.000 euroak, erakunde honek udalarekin duen zorra kitatzeko erabiltzeko aukera ere badagoelako. Beraz, kontra bozkatuko dutela aurreratzen du.

Bestalde, aurreko udal osoko bilkuran Zarkumendegiko partzelarengatik Astigarraga Lantzenek jasoko duen 240.000 euroak Astigarraga Lantzenentzat geldituko direla, eta ez udalaren esku, adierazi zutela dio, eta gaiaren inguruan erabakirik hartu ote den galdetzen du, eta udal kontu-hartzaileari Astigarraga Lantzenek udalarekin duen zorraren inguruko iritzia galdetzen dio.

Honek hartzen du hitza, eta kreditu aldaketaren arrazoia, besteak beste, Anuskako obra, Kiroldegiko obra eta bideratuta dauden hainbat gastuei aurre egiteko egin dela azaltzen dio, eta gutxitutako kontu-sailak, hasi gabeko proiektuak direla, egoera finantziero hobea edo ez ohiko diru-sarrerak egonez gero, berriz handitzeko aukera egonik. Baina Astigarraga Lantzenek 240.000 euroak ez badizkio udalari ematen eta ikastolako obrarentzat Jaurlaritzak 100.000 bat euro gutxiago ordaintzen badizkigu, emaitza presupuestarioan eragina izango lukeela eta

**6. 4ª modificación de créditos: 2-2015 – Transferencia de créditos**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción del siguiente acuerdo:

Aprobar definitivamente el expediente de modificación de créditos en la modalidad de transferencia de créditos 2-2015, por importe de 197.905,47 € conforme al expediente informado por el interventor municipal.

El concejal Andoni toma la palabra, indicando que en la comisión de hacienda solicitaron dejar la propuesta sobre la mesa y realizar ellos mismos otra, ya que en su opinión las partidas elegidas no son las más adecuadas, existiendo asimismo la posibilidad de utilizar los 107.000 euros devueltos por Hacienda a Astigarraga Lantzen para amortizar la deuda que esta institución tiene con el ayuntamiento. Por tanto, adelanta que votarán en contra.

Por otro lado señala que en el anterior pleno municipal indicaron que los 240.000 euros que Astigarraga Lantzen recibirá por la parcela de Zarkumendegi serán para Astigarraga Lantzen, y no para el ayuntamiento, preguntando a continuación si se ha tomado alguna decisión con respecto a ese tema, pidiendo al interventor municipal su opinión sobre la deuda contraída por Astigarraga Lantzen con el ayuntamiento.

Este toma la palabra para indicar que el motivo de la modificación del crédito es hacer frente, entre otros, a la obra de Anuska, a la del polideportivo y a diferentes gastos ya comprometidos, y que las partidas minoradas corresponden a proyectos aún sin comenzar, existiendo la posibilidad de ampliarlas en el caso de mejorar la situación financiera o si hay ingresos extraordinarios. Pero que si Astigarraga Lantzen no abona los 240.000 euros al ayuntamiento y el Gobierno Vasco nos abona 100.000 euros menos para la obra de la ikastola, afectará al resultado presupuestario y no quedará más remedio

kreditu aldaketa egiten beharko litzakeela.

Andoni zinegotziak hartzen du berriro hitza, eta politikarien soldatak eta dietak ordaintzeko urte bukaera baino lehen, kreditu aldaketa bat egin beharko dela adierazten du.

**Irizpena** bozkatu ondoren, aldeko 7 botoekin (EAJ-PNV taldeko 6 eta Euskal Sozialisten 1) eta kontrako 6 botoekin (EHBIldurenak), **onartu** egin da.

7. **<u>“Kale Nagusia 62-64-70-72” hiritartze obraren likidazioa</u>**

Ogasun batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakia har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

> Kale Nagusiko 62, 64, 70 eta 72 zenbakietako urbanizazio-obren likidazioa onartzea, 373.393,51 €-ko zenbateko-arekin, (akatsa batengatik irizpidean 379.893,81€ jarri arren) ezinbesteko baldintza izanik kontu-hartzailearen fiskalizazio-txostenean bildutako zehaztapenak betetzea.

Andoni zinegotziak hartzen du hitza, eta prentsaren bidez 2. fasea egingo dela jakinarazi dutela adierazten du, aurreko batean egin edo ez erabaki aurretik, juridikoki aztertu behar zela esan zenean.

Alkateak argitzen dio, obrarekin jarraitzeko asmoa dagoela, baina ez dakitela noiz, udal aholkulari juridikoari juridikoki aztertzeko eskatu baitiote.

Andoni zinegotziak esaten dio, prentsan adierazi den moduan dirudiela obra segituan hasiko dela, eta prentsara zerbait bidaltzean kontuz ibiltzeko, bizilagunek ez den zerbait ulertu ditzaketelako.

Bestalde, prentsan ikastolako obrari buruz

que modificar el crédito.

El concejal Andoni vuelve a tomar la palabra, indicando que habrá que modificar el crédito antes de fin de año, para poder abonar los sueldos y las dietas de los políticos.

Sometida a votación es **aprobada** con siete votos favorables (6 de EAJ-PNV y 1 de Socialistas Vascos) y 6 votos en contra (de EHBildu).

7. **<u>Liquidación de la obra de urbanización correspondiente a “Kale Nagusia 62-64-70-72”</u>**

Se remite para su aprobación el dictamen de la comisión de hacienda, proponiendo la adopción del siguiente acuerdo:

La aprobación de la liquidación de obras de urbanización de la calle mayor 62, 64, 70 y 72, por importe de 373.393,51€ (si bien por error en dictamen figura 379.893,81€), condicionada a las determinaciones contenidas en el informe de fiscalización del interventor.

Toma la palabra el concejal Andoni, señalando que se han enterado por la prensa que la segunda fase se va llevar a cabo, a pesar de que en una reunión anterior se indicó que el tema debía ser analizado jurídicamente, antes de decidir la conveniencia de su realización.

El alcalde le explica que tienen intención de proseguir con será posible, ya que se encuentran a expensas del análisis jurídico encargado a la asesora jurídico municipal.

El concejal Andoni le indica que según la prensa parece que la obra empezará enseguida, y que hay que actuar con prudencia al dirigirse a la prensa, pues la ciudadanía puede entender algo que no es.

Por otra parte, en lo referente a la obra de la

hitz egiterakoan, bizilagunak ez daudela pozik esan dela dio, bizilagunen kexak ikastolako sarrerari ingurukoak direnean, azken 10 urteetan ukitu ez den sarreraren ingurukoak.

Bertaratutako herritar batek prentsan rektifikazio bat egitea eskatzen duenean, eta gobernu taldeak beti teknikariei edo prentsari errua botatzen diotela adieraztean, Nerea zinegotziak oraingoan prentsaren erruataz nork hitz egin duen galdetzen dio. Herritarrak oraingoan ez baino aurreko plenoan bai bota ziela errua erantzunez.

Nerea zinegotziak hori ez dela horrela esatean, Andoni zinegotziak aktan horrela jasota dagoela adierazten dio, eta herritarrak akta gaizki badago, zuzentzea eskatu behar zutela adierazten dio.

Bestalde, herritarrak Zorioneren kontra egiten du, hitzak berak eduki eta Zorione alkatearekin hizketan omen zegoelako. Bien artean eztabaida bat edukiaz.

**Irizpena** bozkatu ondoren, **aho batez**, **onartu** egin da.

ikastola señala que según la prensa los vecinos no están contentos con la misma, cuando las quejas se refieren al acceso a la ikastola, acceso que no se ha tocado en los últimos 10 años.

Un vecino asistente a la sesión exige una rectificación a la prensa, indicando asimismo que el equipo de gobierno siempre está culpando a los técnicos y a los periodistas, a lo que la concejal Nerea le pregunta quién ha culpado esta vez a la prensa. Contestándole el vecino que en esta ocasión no, pero que en el pleno anterior sí que culparon a la prensa.

La concejal Nerea le responde que eso no es cierto, y el concejal Andoni le indica que está recogido así en el acta, añadiendo el vecino que si el acta estaba mal redactada debían de haber exigido su rectificación.

Por otra parte, el vecino increpa a la concejal Zorione, por estar supuestamente hablando con el alcalde mientras él hacía uso de su turno de palabra. Y ambos enzarzan en una discusión.

Sometida a votación es **aprobada por unanimidad.**

## 8. <u>Mozioa: Askapenarekiko elkartasuna</u>

Andoni Gartziak EHBildu taldeak aurkeztutako mozioa aurkezten du, eta bertan honako erabakiak hartzea proposatzen da:

1.- Elkartasun internazionalista bultzatzeko lanean diharduten erakunde eta pertsona guztiekiko babesa.

2.- Askapena, Askapeña, Herriak Aske eta Elkar Truke-rekiko nahiz inputatutako bost euskaldun internazionalistekiko elkartasuna.

## 8. <u>Moción: solidaridad Askapena</u>

Andoni Gartzia presenta la moción que ha presentado EHBildu, en la que se propone la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Su apoyo a todas las organizaciones y personas que desarrollan la solidaridad internacionalista.

2.- Su solidaridad con las organizaciones Askapena, Askapeña, Herriak Aske y Elkar Truke así como con los 5 internacionalistas vascos imputados.

3.- La exigencia de que no se siga interfiriendo en el trabajo que realizan las organiza-

3.- Askapena, Askapeña eta Elkar Trukek egiten duten lana ez oztopatzeko exijentzia.

4.- Walter Wendelin, Gabi Basañez, Unai Vazquez, Aritz Ganboa eta David Soto euskaldun internazionalisten aurkako epaiketa euren absoluzioaz amaitzeko, dagozkien eskubideak itzultzeko eta zor zaien erreparazioa emateko erreklamazioa.

Zorione zinegotziak hartzen du hitza, eta mozioaren formarekin ados egon ez arren, edukiarekin ados daudela, eta abstenitu egingo direla adierazten du.

Mikel zinegotziak, gaia epaitegietan dagoela, eta epaitegietako erabakia errespetatu behar dela adierazten du.

**Mozioa** bozkatu ondoren, **onartu** egiten da, EHBIlduren aldeko 6 botoekin, EAJ-PNV alderdiko 6 abstentzioekin eta Euskadiko Sozialisten kontrako boto batekin.

## 9. Mozioa: Hassanna Aalia

Andoni Gartziak EHBildu taldeak aurkeztutako mozioa aurkezten du, eta bertan honako erabakiak hartzea proposatzen da

1. Hassanna Aaliari eta bere familiari sostengua eta elkartasuna adieraztea.

2. Arbuiatu egiten du Hassanna Aalia giza eskubideen aldeko saharar ekintzailea urriaren 6an Burgosen atxilotu izana eta ondoren zabaldu den prozedura.

3. Egiaztatzen du Auzitegi Nazionalak kanporatzeko aginduari buruz emandako kautelazko eteteak Hassanna Aalia babesten duela**.** Une honetan, Hassanna Auzitegi Nazionalak bere asilo-eskubideari

cio-nes Askapena, Askapeña y Elkar Truke.

4.- La reclamación de que el proceso judicial contra los Internacionalistas vascos, Walter Wendelin, Gabi Basañez, Unai Vázquez, Aritz Ganboa y David Soto concluya con su absolución, el restablecimiento de todos sus derechos y la reparación pertinente.

La concejal Zorione toma la palabra, y señala que están de acuerdo con el fondo de la moción, pero no con la forma, por lo que se van a abstener.

El concejal Mikel señala que el tema se encuentra en los juzgados, y que la decisión de los juzgados deberá ser respetada.

La **moción** es votada y **aprobada**, con los 6 votos a favor de EHBildu, las seis abstenciones de EAJ-PNV, y un voto en contra de los Socialistas Vascos.

## 9. Moción: Hassanna Aalia

Andoni Gartzia presenta la moción que ha presentado EHBildu, en la que se propone la adopción de los siguientes acuerdos:

1. Manifestar el apoyo y la solidaridad con Hassanna Aalia y su familia.

2. Rechazar la detención del activista saharaui de derechos humanos del pasado 6 de octubre en Burgos, y el inicio del posterior procedimiento.

3. Se constata que está protegido por la suspensión cautelar dictada por la Audiencia Nacional sobre su orden de salida obligatoria. En estos momentos, Hassanna se encuentra pendiente de resolución final por parte del mismo tribunal sobre su derecho al asilo.

buruz eman beharreko behin betiko ebazpenaren zain dago.

4. Barne Ministerioari eskatzen dio Hassanna Aaliak asilo politikorako duen eskubidea aitortu dezala, bere erabakia berriz aztertuz, nazioarteko babes-eskaera 12/2009 Legeak ezarritakoarekin bat onartuta. Izan ere, bere herrialdera itzuliz gero Marokoko agintari okupatzaileek gogor zigortuko dute eta ezin izango da presondegitik irten bizitza osoan, politikoki aktiboa eta nazioartean ezaguna izateagatik, saharar herriaren autodeterminazio-eskubidearen alde modu baketsuan borrokatzeagatik.

5. Marokoko Gobernua Mendebaldeko Saharan eragiten ari den Giza Eskubideen bortxaketa areagotzen ari dela eta gure ardura azaltzea. Errepresio egoera honi amaiera ematea eta Saharako preso politiko guztiak aske uztea.

6. Berretsi egiten ditu bere konpromisoa Saharar Herriarekin eta bere babesa ekimen politiko eta sozialen alde, konponbide justua eta behin betikoa lortzera bideratuta, NBEk adostutako Autodeterminazio Erreferenduma ospatzea eskatuz; hau baita konflikto luze hau lurraldearentzat modu iraunkor, baketsu eta egonkorrean konpontzeko era bakarra.

7. Akordio hauek ondoko erakundeetara bidaltzea:

a. ESPAINIAKO ERREGE-ETXERA

Palacio de la Zarzuela. Carretera del Pardo s/n. 28071 Madrid

b. ESPAINIAKO GOBERNU BURUARI

La Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n. 28071 Madrid

4. Solicitar al Ministerio del Interior que reconozca el derecho a asilo político de Hassanna Aalia, reconsiderando su decisión y aceptando su petición de protección internacional según lo establecido en la Ley 12/2009, dado que si vuelve a su país será castigado duramente por las autoridades ocupantes marroquíes y no volverá a salir de prisión en lo que le queda de vida, y ello porque es una persona activa políticamente, de reconocimiento internacional que lucha pacíficamente por el derecho de autodeterminación del Pueblo Saharaui.

5. Reiterar la preocupación por la vulneración de los Derechos Humanos en el Sáhara Occidental por parte del Gobierno de Marruecos. Exigimos el final de esta situación de represión y la puesta en libertad a todos los presos políticos saharauis.

6. Reiterar el compromiso con el Pueblo Saharaui y el apoyo a las iniciativas políticas y sociales encaminadas a lograr una solución justa y definitiva, en defensa del Solicitar la celebración del Referéndum de Autodeterminación en el Sáhara Occidental, acordado por la O.N.U., como única forma de resolver este largo conflicto de manera duradera, pacífica y estable para la Región.

7. Dirigir los presentes acuerdos a:

a) CASA REAL ESPAÑOLA.

Palacio de la Zarzuela. Carretera del Pardo s/n. 28071 Madrid

b) PRESIDENCIA DEL GOBIERNO DE ESPAÑA.

La Moncloa. Avda. Puerta de Hierro, s/n. 28071 Madrid

c. KANPO HARREMANETARAKO ESPAINIAR MINISTROARI

Plaza de la Provincia, 1. 28012 Madrid

d. ESPAINIAKO BARNE MINISTROARI

Paseo de la Castellana, 5. 28046 – Madrid

e. NAZIO BATUEN AURREKO ESPAINIAKO MISIO IRAUNKORRARI

245 East 47th Street, 36th Floor. New York, NY 10017

f. ACNURREN ORDEZKARITZA ESPAINIAN:

Avda. General Perón 32-2º izda. 28020 Madrid

g. EUROPAKO PARLAMENTUKO PRESIDENTEARI.

Martin Schulz. Rue Wiertz 60. B-1047 Bruselas

h. EUROPAR KONTSEILUKO PRESIDENTEARI.

Donald Tusk. Rue de la Loi 175. B-1048 Bruselas

i. MAROKOK ESPAINIAN DUEN ENBAXADARA.

c/ Serrano, 179. 28002 Madrid.

Mikel zinegotziak hartzen du hitza, eta bozeramaileen batzordean adierazi bezala, mozioa babesten dutela dio.

Andoni zinegotziak Saharako uholdeak direla eta diru laguntza eskaera bat aurkeztuko dela adierazten du, eta Garatze bidean ari diren herriei udalak ematen dituen

c) MINISTERIO ESPAÑOL DE ASUNTOS EXTERIORES.

Plaza de la Provincia, 1. 28012 Madrid

d) MINISTERIO ESPAÑOL DEL INTERIOR

Paseo de la Castellana, 5. 28046 – Madrid

e) MISIÓN PERMANENTE DE ESPAÑA ANTE NACIONES UNIDAS

245 East 47th Street, 36th Floor. New York, NY 10017

f) DELEGACIÓN DE ACNUR EN ESPAÑA:

Avda. General Perón 32-2º izda. 28020 Madrid

g) PRESIDENCIA DEL PARLAMENTO EUROPEO.

Martin Schulz. Rue Wiertz 60. B-1047 Bruselas

h) PRESIDENTE DEL CONSEJO EUROPEO:

Donald Tusk. Rue de la Loi 175. B-1048 Bruselas

i) EMBAJADA DE MARRUECOS EN ESPAÑA.

c/ Serrano, 179. 28002 Madrid.

El concejal Mikel toma la palabra, indicando que respaldan la moción, tal y como indicaron en la comisión de portavoces.

El concejal Andoni señala que se va a presentar una solicitud de ayuda por las inundaciones del Sáhara, y solicita que, teniendo en cuenta que en su momento se reservó una parte de la ayuda destinada a los pueblos en desarrollo, sea ahora destinada a tal fin.

laguntzaren zati bat eman gabe utzi zenez, honetarako bideratzea eskatzen du.

Alkateak erantzuten dio, laguntza horren zenbateko zati bat eman gabe utzi zela, larrialdiren bat etorriz gero emateko, eta zoritxarrez larrialdia iritsi dela.

**Mozioa** bozkatu ondoren, **aho batez, onartu** egin da.

**10. <u>Mozioa: azaroaren 7ko indarkeria matxisten aurkako martxa</u>**

"Movimiento Femenista 7N" taldeak aurkeztutako mozioari buruz jakinarazten da, bertan honako erabakiak hartzea proposatzen da:

- 2015eko azaroaren 7an Udaletxearen aurrealdean pankarta more bat jartzea 'Indarkeria Matxisten aurka' leloarekin, eta herritarrek Martxan parte har dezaten sustatzea.
- Halaber, urtero egingo du berdina azaroaren 25ean, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna baita.
- Urteko egun guztietan, urte guztietan, berdintasunaren aldeko, indarkeria matxistaren prebentziorako eta indarkeria horren biktimei arreta juridiko, sozial eta psikologikoa emateko baliabideak –giza baliabideak, materialak eta politikoak– bermatzea, 1/2004 Lege Organikoaren 19. artikulua betetze aldera; horretarako, epe luzeko finantzaketa-sistema egonkorra ezarri behar da Estatuan, autonomia-erkidegoetan eta udaletan.
- Arreta egonkorra eta kalitatezkoa izatea, irisgarritasun handia, konfidentzialtasuna, babesa eta anonimatua bermatuta, eta errehabilitazioa, ebaluazioa eta jarraipena barnean hartuta. Horretarako, berdintasunaren aldeko eta genero-

El acalde le contesta que una parte de la cantidad de la ayuda mencionada se reservó para casos de emergencia, y que, desgraciadamente, la emergencia ha llegado.

Sometida a votación la moción es **aprobada por unanimidad**.

**10. <u>Moción: marcha 7 de noviembre contra la violencia machista</u>**

Se da cuenta de la moción presentada por "Movimiento Femenista 7N" en la que se propone la adopción de los siguientes acuerdos:

- Colocar el 7 de noviembre de 2015 en la fachada del Ayuntamiento una pancarta violeta con el lema 'Contra las Violencias Machistas' y promover la participación ciudadana en la Marcha
- Hacerlo igualmente cada año el 25 de noviembre, Día internacional contra la violencia hacia las mujeres.
- Sostener todos los días del año, todos los años, los recursos personales, materiales y políticos para la igualdad y para la prevención y atención jurídica, social y psicológica a las víctimas de violencia machista, cumpliendo el art. 19 de la Ley Orgánica 1/2004, estableciendo un sistema estable de financiación estatal, autonómica y local a largo plazo.
- Atención estable y de calidad, en condiciones de amplia accesibilidad, confidencialidad, protección y anonimato, que incluya la rehabilitación, evaluación y seguimiento, lo que conlleva la gestión pública directa de los servicios para la igualdad y contra la violencia de género
- Contribuir a la promoción de la igualdad y contra la violencia de género en todos los centros y en todas las etapas educativas, cooperando con la comunidad escolar

indarkeriaren aurkako zerbitzuak zuzeneko kudeaketa publikoaren bitartez kudeatu behar dira.

- Berdintasuna sustatzen eta genero-indarkeriari aurka egiten laguntzea ikastetxe eta hezkuntza-etapa guztietan, eskola-komunitatearekin elkarlanean.
- Sexismoaren aurkako sentsibilizazioa kultura-arloko jardueretan, festak antolatzean, segurtasun- eta bizikidetza-jardueretan, eta udalaren eskumeneko jardun eta zerbitzu guztietan.
- Sexismoa, bereizketa, jazarpena eta sexu-estereotipoak desagerraraztea gure jardun eta zerbitzu guztietan.
- Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeei eta indarkeria matxistaren eraginpeko bestelako kolektiboei –sexu-dibertsitatea dutenak, etorkinak, dibertsitate funtzionala dutenak, langabezian daudenak edo inoren laguntza behar dutenak– bereziki arreta ematea, eta arreta-prozesuetan biktimizazio anizkoitzik ez egitea.
- Gizarte zibilak parte hartzea, bereziki, emakumeen elkarteek.

Erabaki hau Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzara helaraztea, Istanbuleko Hitzarmenaren 68. artikulua betez jarraipena egitean eta GREVIOra bidaltzen dituen txostenetan tokiko administrazioaren jardunak ere txerta ditzan, 7.3 eta 18.2 artikuluei jarraiki.

Zorione zinegotziak hartzen du hitza, eta estatuak antolatu arren, alde daudela adierazten du, Harituz elkarteak martxara joateko antolatu duen autobusa udalak diruz lagundu duela adieraziz. Eta bide batez, herritarrak gonbidatu nahi ditu martxara joateko, eta autobusean oraindik ere lekua dagoela adierazten du.

Andoni zinegotziak hartzen du hitza, mozioarekin bat egiten dutela adierazteko.

Mikel zinegotziak bere taldeak ere martxa

•Sensibilización contra el sexismo en la actividad cultural, de organización de festejos, de seguridad y convivencia y todas las actuaciones y servicios de competencia municipal

•La erradicación del sexismo, la segregación, el acoso y los estereotipos sexuales en todas nuestras actuaciones y servicios

•Atención especial a las mujeres con discriminación múltiple y otros colectivos agredidos por la violencia machista, como personas con diversidad sexual, migrantes, con diversidad funcional, en situación de desempleo o dependientes, y no incurrir en la victimización múltiple en los procesos de atención.

•La participación de la sociedad civil, en particular las organizaciones de mujeres.

Enviar este acuerdo a la Delegación del Gobierno para la Violencia de Género, para que en su seguimiento e Informes al GREVIO para la aplicación del Convenio de Estambul que establece su artículo 68 incluya, conforme a los artículos 7.3 y 18.2, las actuaciones de la administración local.

La concejal Zorione toma la palabra, indicando que están a favor, pese a ser una iniciativa organizada por el estado, señalando que el ayuntamiento ha subvencionado el autobús organizado por la sociedad Harituz para acudir a la marcha. Y aprovecha la ocasión para invitar a la ciudadanía a acudir a la marcha, señalando que todavía hay sitio en el autobús.

El concejal Andoni toma la palabra, para señalar su postura favorable a la moción.

El concejal Mikel indica que su grupo también respalda la marcha y la moción.

Sometida a votación **la moción es aprobada**

babesten dutela adierazten du, bai eta mozioa.

**Mozioa** bozkatu ondoren, **aho batez, onartu** egin da.

**11. Batzorde informatiboaren izen aldaketaren onarpena**

Bozeramaile batzordearen irizpena bideratu da onar dadin, eta honako erabakia har dezaten proposatzen da irizpen horretan:

> *"Kirolak eta partehartzea"* batzordearen izena, *"Kirolak, gardentasuna eta partehartzea"* izenarengatik aldatzea.

Andoni zinegotziak hartzen du hitza, eta batzordea eratzeko eskaera beraiek egin zutela adierazten du, gardentasun legea urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu behar denez, beharrezkoa ikusten zutelako, baina kontuan harturik beste batzorde bat sortzea dakarren lana eta kostua, ongi ikusten dutela aurkeztu den proposamena.

Mikel zinegotziak bere alderdia ere gardentasunaren alde dagoela adierazten du, eta legeak ezartzen duena baino urrutiago joan behar dela dio.

Irizpena bozkatu ondoren, **aho batez, onartu** egin da.

Alkateak bilera amaitutzat ematen du, eta Andoni zinegotziak galdera eta erreguak egiteko aukera ez duen emango galdetzean, honek ezetz esaten dio, legeak ez duelako aurreikusten.

Andoni zinegotziak erantzuten dio, udalean beti egon dela ohitura ez ohiko bileratan hitza ematearena, eta ez ematea

**por unanimidad**.

**11. Aprobación modificación denominación comisión informativa**

Se remite para su aprobación el dictamen de la junta de portavoces, proponiendo la adopción del siguiente acuerdo:

> Modificar la denominación de la comisión de "*Deportes y participación"* por el de "Deportes, transparencia y participación".

Toma la palabra el concejal Andoni, indicando que la solicitud de creación de la comisión la presentaron de ellos, ya que lo consideraban necesario teniendo en cuenta que la ley de transparencia debe aplicarse a partir del 1 de enero, pero en cualquier caso, teniendo en cuenta el trabajo y el coste que conlleva la creación de otra comisión, consideran adecuada la propuesta presentada.

El concejal Mikel indica que también su partido está a favor de la transparencia, y que es necesario ir más allá de lo establecido en la ley.

Sometida a votación es **aprobada por unanimidad**.

El alcalde da por finalizada la reunión, y a la pregunta del concejal Andoni sobre si habrá posibilidad de ruegos y preguntas responde que no, por no estar previsto en la ley.

El concejal Andoni le responde que en el ayuntamiento siempre ha habido ruegos y preguntas en los plenos extraordinarios, y que no hacerlo así va en contra de la transparencia. Y solicita que el acta recoja que el alcalde ha aplicado la "ley mordaza".

Para finalizar felicita a Zipotza Elkartea por su

gardentasunaren kontra doala. Aktak, alkatea “mordaza legea” aplikatu duela jasotzea eskatuz.

Bukatzeko zipotza elkartea zoriontzen du, bere 30 urteurrena delako.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

30 aniversario.

Sin más asuntos que tratar, se da por finalizada la sesión, y a continuación he pasado a redactar este documento, que da fe de lo debatido y de los acuerdos adoptados.

o

Astigarragan, 2015eko urriaren 24an

**Kontxi Urdampilleta Santamaria**
**Ordezko idazkaria**